

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (III. atala)

Jabier Lertxundi

Ekonomia Zientzietan doktorea, Gestión del Conocimiento ITZARRI SLLren koord.

Uztaro 59. eta 61.ean argitaratu ziren artikuluei jarraiki, honetan gure gizartearentzako autoalternatiba autogestionarioa hainbat arlotan garatzeko hausnarketa sakona egiten da. Kasu honetan aztertutako gaiak dira Kultur Espekulatiboa eta Baliabide Naturalak, Kontsumismoaren Gainditzea, eta Ekonomian erabiltzen den Zientzia eta Teknologia. Aurretik egin zen legez, erabilitako metodologia berdina izan da, hots, kapitalismoak, sozialismoak eta autogestioan oinarritutako esperientziak esparru honetan dituzten ekarpen garrantzitsuenak jaso, eta, aldi berean, autoalternatibaren baitan erabilgarriak diren euskal nortasunaren ezaugarriak identifikatu ditugu.

Continuing with articles published in nº59 and in nº61 of Uztaro, in this reflection is made deep on the autogestionary way to socialize some aspects relative to the Autoalternativa. Concretely we talked about the Speculation Culture and Natural Resources, the Consume way Overcome, and in the Economy uses of Science and Technology. As previously, in this time too has been used the comparative methodology; so that in the analysis of the Autoalternativa those had interesting contributions are included in Capitalism, the Socialism and Autogestionary Experiences, along with the interesting characteristics for these socioeconomics aspects and that come directly from Basque races.

Uztaroren 61. zenbakian argitaratu zen *Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (II. atala)* artikuluari jarraituz, ondoko orrialdeetan aztertuko dugu nola kokatzen den euskal gizaki autoalternatiboa beste arlo ekonomiko batzuetan, honako gai hauek jorratuta: espekulazioaren joera, baliabide naturalen ustiapena, kontsumismoa, eta zientzia eta teknologia.

Kultura espekulatiboa eta baliabide naturalak

Espekulaziotik abiatuta, baita baliabide naturalen espekulaziotik ere, errekur-tso ekonomikoak lortzeko sistemarik onena dela esan genezake?

Gaur egungo kapitalismoa dela-eta, baliabide ekonomikoak lortzeko espekulazioa izan da erabili den modu eraginkorrena. Yankiek adostutako eredu ekonomikoa izan da espekulazioaren eredu eta filosofia, eta ideia horrekin jarraituz, beharrezkoa da aipatzea pertsona horientzat dirua ez dela existitzen, baizik eta dirua eratu egiten dela mekanismo espekulatiboen bidez. Astiro bada ere, igoera proportzionala nabari daiteke, kapital finantzarioa eta kapital industrialak alderatuz, baita nekazaritza-sektorea edota beste era bateko edozein produkzio-sektore ere, mundu-ekonomia desorekatuz eta zerbitzu-sektorea indartuz, non enpresa gehienak erabat espekulatiboak izaten diren.

Era horretan, “pelotazoaren” kultura barneratu dugu gure bizitzako eredu ekonomiko gisa eta zorrez betetzen ditugu gure bizitzak, baliabide ekonomiko berriak lortzeko asmoz, produkzioa baztertu eta espekulazioaren sistema dirudun egiteko aukera onena dela pentsatuz.

Espekulazio horretatik ez da inor libre ateratzen, dirua lortzeko balio duen edozer ekonomia-objektu bilakatzen da: baliabide naturalak, ez bakarrik hidrokarburoak eta mineralak, baita lurra, airea, eguzkia, ura, itsasoak eta pertsonak ere, espekulazioaren bitartez denok bilakatzen baikara aberastasun-iturri.

Era berean, edozein egoerari zein etekin ekonomiko atera geniezaiokeen pentsatzen ematen dugu denbora, bai harreman pertsonaletan bai naturarekin dugun harremanetan. Erabateko esplotazioa bultzaten dela ezin uka daiteke eta, ondorioz, gizarte honetan dagoen balio-eskala nagusi bilakatzen da, hots, baliabideen jabetza edo baliabideak dituztenen itxurakeria suertatzen da.

Yankien sistema ekonomikoaren bitartez, ezin da zalantzan jarri garrantzi handiagoa duela pertsonak edukitzearen kontzeptuak pertsona izatearenak baino.

Itxurakeriaren balioak horrenbesteko indarra jaso duenetik, pertsonak lanmerkatura pasatzen dutenean, bereganatutako zerbitzu higarri zein higiezin joko ekonomikoa finantza-kapitalak espekulatzeko erabiltzen duen pagotxa handienetariko bat da. Baliabide naturalen pribatizazioa: haizeak, urak, eguzkiak, lurak, baliabide ekonomikoak sortzeko balio dutela eta zilegi dela adierazten da, gaur egungo negozio garrantzitsuenetarikoak izanik. Azkenik gaineratu dezagun “denak balio du” dioen kultura gailentzen ari dela, dirua mugitzen delarik gure poltsikoetatik.

Kultura espekulatiboa ere globalizatzen ari da. Horregatik adieraz daiteke, sistemek ezarritako mugak gainditzen dituela; sistema sozialistetan espekulazioen alde bat kontrolatzen da, pertsona guztiz usteldu ez dadin, baina espekulazio-olatu oso indartsua denez, ez da erabateko berdintasunean ematen eta gizaseme guztiok barneratzen gaitu olatu horren barnean.

Bestalde, erabateko egia da arazo larriak sortzen ari garela, hala nola pertsonen zorren esparrua gehitzea eta ingurumenari egiten zaion mina, hori dela-eta, diru-iturri handiak sortzen dituen sistema eta gizabanakoei zein ingurumenari sortutako atsekabe lazgarriak ahaztu gabe.

Horrela jarraituz gero, host, gure balio-eskalan edukitze maila bizi-kalitatearen aurretik jartzen jarraitzen bada, desnaturalizatzeko arriskua izango dugu, baita giza izatea suntsitzeko arriskua ere.

Era horretan, gizabanakoen arteko erlazioak alderatzen dituen sistema bilakatzeko da, non bakoitza bere kristalezko bolatxoan bizi den eta beste pertsonetik kontaktua ekiditen den ez kutsatzeko asmoarekin. Azken horrek gizartea gaixotzen du, giza naturari min egiten dio eta gaixotasun sozialak sortzen ditu.

Buruko gaitz ugari nabarmentzen hasi dira azken bolada honetan drogen eraginez, gero eta adin goiztiarragoetan hasten direlako drogak kontsumitzen gazteak.

Bestalde, bikote-bizitzan espekulazioaren interesa ezartzen denean, oso erraz apurto ohi dira erlazio horiek, eta ondoren suertatzen diren familia-arazoak areagotu, batik bat seme-alabak izan dituzten bikoteetan.

Gaia aldatuta, aipa dezagun baliabide naturalen espekulazioa; izan ere, gizakiaren propietate baliodunaren ustiakuntza geldiezina gertatzen ari da, denona den zerbait helburu pribatu gisa erabiliz. Egia esan, mendi ugari daude porlan bihurtuta, produkzioak aurrera ateratzeko errekek zikintzen dira eta, paradogikoa bada ere, errekek zikintzearekin batera produkzioa merkatzen da.

Haizearen indarra eta eguzkiaren beroa pribatizatzen dira, elektrizitate-konpainia handiek erabilitako espekulazioa dela-eta. Kontrolik gabe eraikitzen da lurrarekin espekulatuz, eta, ondoren, porlanez eta hornez eraikitako espazioetan ixten ditugu geure buruak. Era horretan desnaturalizatzen ari gara, diruak faltsuki eragiten digun erosokeria horren pean. Burges erako esparrua sortzen da non, azkenean, gauza guztiek aztoratu eta aspertzen gaituzten.

Indigenek munduarekin duten harremanak asko lagundu ahal digu daukagun errealitate honi buelta emateko. Ez da kasualitatea yankien kultura kolonizazioan oinarritzea edo indigenen genozidioan. Era horretan, naturarekin harreman zuzena duten pertsonak baztertu eta gutxira bertako lurraldeetan etxeak eta era askotako eraikinak altzarazi dituzte. Izan ere, indigenen kulturen nabarmena zen harreman pertsonalen bitartez jazotzen zirela harreman ekonomikoak, non truke-sistema erabiltzen zen, ez moneta-sistema.

Indigena batek baliabide natural bat ustiatu behar duenean, horren egoera aztertzen du jakin ahal izateko egin dezakeen ala ez. Baliabide naturalak gure

izatearen parte direla ulertzen delako, beraz, lurretik zerbait hartzekotan ondorengo ere zaintzen da behin betiko ez agortzeko.

Indigenen kulturak ez du aditzen natur baliabideak pribatiza daitezkeenik, gutxi batzuen espekulazioaren mesedetan, gizajendea esklabizatuko litzatekeelako. Izan ere, norenak dira lurra eta lurrak eragindako baliabideak? Norenak dira urak eta lurreko biztanleak? Norenak dira haizearen indarra eta eguzkiaren beroa? Nola uler daiteke gizakiak sistema ekonomiko berri eta indartsua eratzea, zeinak esplotazio pribatuaren espekulazioa lantzen duen eta, ondorioz, guztiaren suntsipena?

Desnaturalizatu egin gara eta, ondorioz, barne-gogoeta bat egitea behar-beharrezkoa suertatzen da, indigenek egindako bidera bueltatzeko asmoz, eta berriro ere naturalizatzeko. Bestela, lurra suntsitzeko aukerak areagotzen dira eta bizitzeko egokia ez den lurra lortuko genuke.

Autoalternatibak indigenen ikuspegiarekin bat egiten du eta baliabide naturalen gestio komunitarioa bultzaten du, ahaztu gabe eta ideia horretan sartuz gizakiaren natura ere. Stop espekulazioari! hauxe litzateke goiburua; pisu sozioekonomikoaren karga guztiarekin ere bai.

Horretarako arau berriak landu beharko lirateke, natur baliabideen ustiakuntzan jabetza komunitarioa eta herriaren erabaki-ahalmena indartuz. Horretarako ez du balio ustezko sistema demokratikoak; izan ere, horregatik ez dago ahalbide arbitrario bat, ibilbide espekulatiboa alderatuz; izan ere, hau da suntsitzen gaituen arrazoi nagusia. Gainera sistema espekulatibo horrek gazteria baztertu eta adinez helduagoak diren pertsonak promozionatzen ditu, gehiengo eta gutxiengoen legeak areagotuz; ondorioz, hauteskunde batzuen bitartez hautatzen dira politika estrategikoak gestionatuko dituztenak, zeinek gure bizitzak baldintzatu eta hurrengoko belaunaldiak ere bideratuko dituzten.

Era horretan, baliabide naturalen ustiakuntza kultura indigenak lurrarekin duen zuzeneko erlazioatik abiatuta, autoalternatibaren baitan klabea litzateke. Berreskuratze hori puntu hauen laburpenean oinarri daiteke:

- Baliabide naturalen espekulazioa gelditu, izaera pribatua alderatuz eta gizarte-jabetzara bueltatuz.
- Legeak aldatu, gehien jasaten duten pertsonen lehentasuna izan dezaten baliabide natural horien eragite ekonomikoa indarrean jarri baino lehen.
- Hezkuntza integral eta orekatua lortu, espezie guztiak bizi ahal izateko naturarekiko ezagupena eta errespetua lortuz.
- Espekulazioa legalki, sozialki eta ekonomikoki zigortu eta pertsonen arteko elkartasunezko eta adiskidetasunezko harremanak bermatu.
- Filosofia panteista berreskuratu baina “dena jainkoa” delako ikuspegitik ez, baizik eta “dena da natura” ikuspegitik.

Kontsumismoaren gainditzea

Posible dugu kontsumismoaren dependentziatik askatzea?

Aurreko atalean azaldu dugun legez, ez da erraza ikustea sistema kapitalistaren baitan, espekulazioaren indarrak kutsatuta ez dagoen pertsonarik, eta kontsumoaren itzaletik askatzea ere ez da batere erraza. Bere logika dauka; izan ere, kapitalismoaren krisia superproduktzioaren ondorioa izan ohi da, hau da, sistema horrek pertsonak kontsumitu ahal duena baino askoz ere gehiago produzitzen duelako, alegia.

Sozialismoan ez da gauza bera gertatzen, azpiproduktzioa izan ohi da haren krisia eta arazo hori ekidituz doa gauzak egitearen bidea jorratuz. Horrek ez du adierazi nahi gizarte sozialistetan kontsumitzeko nahia ez dagoenik, eta nahi horrek areagotzen ditu arazo soziologiko eta psikologikoak, lortu nahiaren eta ezinaren arteko borroka indartsua sortzen baita.

Sistema kapitalistan, haurrentzako zabor-janariz beteriko kolore bitxietako paketeen plastikoek hiriko zein herriko kaleak estaltzen dituzte. Beraz, kontsumismo ikaragarri hau haurtzarotik bermatua dago eta horren ondorioz geroago, drogak (legalak edo ez-legalak), ustezko erosotasunak, motor-ibilgailuak, bidaiak turistikoak (kontsumitzeko era berri baten gisan ulertuta) eta, azkenik, zahartzarora heldu eta adineko pertsoneri zuzendutako beste hainbat produktu ezartzen dira; kontsumismoa azken mugaraino heltzen da, bizitzako azken uneak ere biziki pozten dituztelarik kontsumismoaren itzalean.

Sistema sozialistetan balio-eskala ezberdina erabili ohi da. Hor funtsezko bilakatzen dira pertsonen arteko erlazioak, eta harreman horiek eros daitezkeen produktuak baino garrantzi handiagoa dute. Hala ere, sistema sozialistak ezin izan du kontrolatu berean sortutako hainbat errealitate, argi dago hainbat lurraldetan jasandako produktuen eskasiaren eraginez, produktu hoiak erosteko nahia maila ikaragarrian handitu dela. Hala ere, argi dago sistema sozialistak arazoaren sustraia aurkitu duela behintzat.

Jakina da lurralde horietara turista mordo bat joan ohi dela urtez urte turismoaren sektorearen askatze-prozesua dela-eta, turista gehienak sistema kapitalistako lurraldeetatik datozela kontutan hartuz, bertakoentzat turisten kontsumo maila altuak eskuraezinak diren luxu bihurtzen dira. Lurralde sozialistetan, akzio mediati-koek ere sekulako garrantzia hartzen dute kontraesan ikaragarriak sortuz bertakoen artean.

Hori dela-eta, kapitalismoaren barnean dauden pertsona asko erabat nazkatuta bizi dira, txikitatik kontsumismoaren inguruan izan direlako; sozialismoan, berriz, harreman pertsonal ezin hobekak dituztela konturatzen dira baita elkartasun maila handia dagoela ere, baina nagusitzean sistema ekonomikoaren hutsuneak ezagutzen dituzte eta produktu gehiagoko merkatu batekin egiten dute amets, dagoen produktuen eskasietatik askatzeko nahia erakutsiz. Mundu honen bi alde ezberdinak dira, mundu honetan bizi ahal izateko alternatiba egokia aurkitu ez den arren, alde batetik erosotasuna, pertsonen arteko erlazioen garrantzi ikaragarria ahaztu gabe.

Autoalternatibaren ikuspegitik, bi eredu horien asebetetze mailaren batez bestea neurtuz gero, harreman pertsonalak sustatzen dituen sistemaren errentabilitate-indizea hobea litzateke, kontsumismo eroa sustatzen duen sistema kapitalista baino. Hori guztia egiaztatzeko nahikoa izango litzateke egiaztatzea zer-nolako indizeak dauden, suizidio, sexu-eraso, intolerantzia, xenofobia, arrazakeria, ekonomia mailako diskriminazio, eta abarretan.

Ondorioz, giza garapenarentzako sistema sozialista hobea dela ulertu eta gero, hemendik aurrera egin beharreko gauza garrantzitsuena hau litzateke, hots, atal ekonomikoaren antolamendu egokia egitea, hain zuzen. Frustrazio-sentimenduak baztertuz, egun existitzen diren produktu eta zerbitzuen eskaera murriztua eragotziz.

Azken hausnarketa hori sistema alternatibo honen oinarria da, kontsumoa eta erlazio pertsonalak alde kontrajarrietan ez egotea lortuz.

Ikuspegi moraletik, sozialismoak historikoki gogorki kritikatu du sistema kapitalistan jazotako gehiegizko kontsumoa sexu-merkatua zigortuz eta debekatuz, estupefazienteen salmenta eragotziz, merkatu kontsumistaren sarrera hobetzeko korrupzio maila aztoratuz, etab. Arazoa, kontsumoaren eta kontsumismoaren arteko muga ezartzean dago, azken hori, gizarteak errepresioa den zerbait uler dezan.

Korapiloa askatzeko irtenbideak ez dira errazak, hala ere, irtenbidea topatzea ez da ezinezkoa. Lehenbizi, eztabaida berritzaile bat ezarri beharko litzateke gure gizartean, nahi ditugun bizi-formak ongi zehaztuz, posizionamendu dogmatikoak baztertuz eta baldintzatuko duten interes partikularrak alboratuz. Beraz, estrategia politiko eraginkorra jarri beharko litzateke mahai gainean: gizarte honen bizitzaren filosofia, alegia.

Orain arte eztabaida hau ez da bide demokratikoetan bermatu; izan ere, beti egon dira batzuen edo besteen interesak. Hori dela-eta, neurri errepresiboak zein inposiziozkoak ezarri eta bakoitzak bere bizitza filosofia suspergarri baten bitartez planifikatzeko ahalmena baztertu da.

Kontsumo arduratsuari edukia ematekotan, anbiguetatea murriztea egokia litzateke; izan ere, diruduna den pertsona batek kontsumo altua izatea normalena litzateke; ezer ez duenak, berriz, gutxi kontsumituko luke; horren harian kontzeptu filosofikoa asko aldatzen da batetik bestera. Ongi legoke sistema baten barnean kontsumo-ahalmena zein den jakitea eta kontsumo horren bitartez eragindako harreman sozialak aztertzea. Hau da, eztabaida filosofikoak integrala eta benetakoa beharko luke izan, eta orobat jakin beharko genuke sozioekonomia zientzia bat dela, beraz, eztabaida horretan ezin bazter daiteke ekonomia soziologiatik, gaur egun egiten den legez.

Hori dela-eta, autoalternatibaren garapena lortzeko pertsonen ahalmenean oinarritzen gara, pentsamendu autonomo bat eratuz, gizarteari zabalduko eztabaiden bidez, ondorioak atera eta praktikan jartzeko asmoarekin. Pertsonen ahalmen hau inposiziozko politiken bidez ez da zilegi, ez eta demokratikoa ere, beraz, horren aurka jarraitzea erabakigarria da.

Bide honek autoalternatibaren jarduera soziopolitikora garamatza. Atal sozio-ekonomiko honetan ez dugu esandakoa nabarmenduko, erabaki-eremu bat bermatu ezean, eztabaida filosofikoa ez da nahikoa izango.

Sozioekonomiaren ereduaren bilakaera garatzeko, erabateko garrantzia du beharrezko dituen baldintzak sortzeak. Era horretan, transakzio ekonomikoak menderatutako eremuak sortuko dira eta eremuok burujabeak izateko, soilik monetarioak diren beste truke modu interesgarriago batzuk bilatu beharko lirateke. Nazioarteko truke-sistema ezberdinak eratu, luzatu eta bilakatu beharko dira, merkataritza zuzen eta zilegi batean oinarritutako eredu aukera egokia litzateke, baina hori ezin da egin sistemaren inposaketa baten bitartez, gizarteak erabakitako eztabaida-prozesu baten ondorioz baizik.

Aspektu horretan ere, indigenen ikuspuntuak bere garrantzia du; izan ere, gizarte-erlazioak interakzio komunitarioen sustapenean oinarritzen dituzte; erlazio ekonomikoa, berriz, komunitatearen onuran eta gizarte-zerbitzuetan oinarritzen dute. Hori dela-eta, eredu kapitalista sistema sozialista baino askoz ere integralago bilakatzen da, sozialistan gizartea eta ekonomia ez daudelako integraturik eta bizilagunen artean sortzen diren kontraesanek irtenbide zaila dutelako.

Euskaldunen atalean, indigenen pentsaera-eredua garai aurrerakoi honetan indarrez aurkeztu da, sistema komunitarioaren defentsan, foruetatik hasi, non erregimen liberal ezberdinen aurka su eta odolez borrokatu ziren, eta erkidego sozioekonomikoen alternatibak sortu ziren, betiere, kontzeptu komunitarioaren ikuspegitik oinarrituta.

Gure historia modernoaren azterketa txikia eginez gero, lehen aipatutako baieztapena frogatzen da. Izan ere, erregimen foraleko kompetentzia batzuk mantentzen dira Araban zein Nafarroan, zeren Franco jeneralak, hiperzentralista izan bazen ere, ezin izan baitzituen kendu; euskal erkidegoaren itzala mantendu zen, nahiz eta errepresio frankistak sekulako buruhausteak sortu (euskara ikastea debekatuz eta denbora luzez etxeetan soilik erabiltzera behartuz) eta denbora latz haietan ikastolen mugimendua sortu zen, enpresetan kooperatibismoa, eta horrelako hainbat esperientzia ere, euskal eredu sozioekonomikoa mentalitate indigenarekin bat etorrita.

Euskal autoalternatiba kontzeptu horietan datza eta norberaren autogaitasuna handitu nahi du. Sistema sozioekonomiko integrala supertu nahi du, non alde ekonomikoa zein soziala kontzeptu komunitarioaren bidez zertzen baitira, era horretan, erlazio pertsonalen sakontasunaren eta kontsumo librearen arteko kontraesanari irtenbidea aurkituz, alde indibidualista baten kontsumoaren eta erlazio pertsonalen artean sorturiko erlazioaren bitartez.

Beraz, kontsumismoaren gaitzeta euskal autoalternatibaren ikuspegitik parametro hauetan aurkitzen da:

1. Kendu zituzten, ordea, Bizkaian eta Gipuzkoan, herrialde traidoreak izendatuz. Horrekin II. Errepublikarekin bat egin izana zigortu nahi izan zuten.

- Sistema sozialistaren giza garapenaren bitartez ikasi beharra dago, ekonomia-eredua garatzen eta bermatzen den bitartean, zerbitzu eta onura nahikoak ezarri, indibidualista ez den ikuspegi komunitario batetik begiratu soilik. Hau da, kontsumo arduratsuaren kontzeptuak gizarteak berak erabakitako ekintza beharko luke izan.
- Nazioarteko trukeak garatu eta mundura luzatu beharko lirateke, komunitate ezberdinen arteko harremanak ondo leunduz, merkantzien erabilera zehaztu eta ez soilik eskaintza/eskaeraren arteko sistema. Era horretan, merkantzien erabileran oinarritutako nazioarteko merkataritza bermatuko litzateke eta, horrek, aldiz, erantzukizun handiagoa sortuko luke kontsumoan, mundu mailan.
- Zientzia ekonomikoa eta soziologikoa batzea onuragarria litzateke, zeren erlazio komunitarioaren garapena bermatuko lukeen sistema sozioekonomikoa lortuko bailitzateke; horrela, ekarpen eta akzio ekonomikoak kontsumo indibidualista baztertuko luke, eta bide batez, zarrastelkeria eta desestrukturazio pertsonala.

Zientzia eta teknologia ekonomian erabiliz

Gure garapen zientifiko-teknologikoa aukeratzen dugu?

Ekonomia ikasteen jakin badakigu teknologia berriek merkatu oso interesgarria dutela. Telefonia mugikorra kontuan hartuz gero kontura gaitzake horretaz edo talde informatikoak, softwarea, etab. Baina gehienetan ez diogu geure buruari galdetu ea teknologia hori bene-benetan eta irrikaz nahi izan dugun, beraz, inposatutako teknologia dela zihurta genezake.

Jakina da beharizan zientifiko eta teknologikoak goitik behera datozkigun erralitateak direla, eta erabaki horiek oinarritik ematea ez da posible izaten. Horrez gain, egia ere da, gizarteari begira ezarritako teknologia berriak garapen militarretik bultzatu izan direla, jakinda hainbat administrazioek denok ordaindu behar ditugun fondo publikoetatik diru asko jaso dutela estatu-aurrekontuak eratzeko.

Hau da, garapen teknologikoa posible bilakatzen da aurrekontu publikoen bitartez, teknologia militarra bermatzeko izaten da eta, ostean, pertsona gutxi batzuen esku geratzen da ustiapen komertziala jorratzeko.

Beraz, ZER ikertu erabakitzea eta zer irtenbide emango zaion lortutako teknologiarekin, hau da, NOLA erabiltzea, pertsona gutxi batzuen esku izan ohi da... guztien izenean erabakitzen dutenak.

Hau guztia baldintza ekonomikora eramanez, korporazio publiko zein pribatuak izendatu behar dira, administrazio egokien eta dirudunen laguntzaz, erabakitzeko zein pertsona izango den ikerketa- eta garapen-planak aurrera aterako dituen, gainera azken horiek dira ohiko kultura teknologikoaren oinarriak ezartzen dituztenak.

Horrez gain, abantaila teknologiko bat antzematen denean pisu espezifiko ekonomikodun erakunde bat egon ohi da atzealdean, hori berehala jartzen da

kontaktuan bertako administrazioarekin, konkurtsoa prestatu eta horri buruz iker-
tzeko. Adibidez, telefonia mugikorraren garapena. Baina jakin-min teknologikoak
konpainia erraldoi horien babesa ez duenean, aldiz, horren garapena eta ikerketa-
prozesua aurrera ateratzeko beharrezkoak diren ikaragarritzko diru-iturriak ez dira
erraz aurkitzen, adibidez, gosearen aurkako borrokan edo lasterketa armamen-
tistan.

Izan ere, izaera demokratikodun errealtate batean bizi garela ziur egonez gero,
zergatik ez dituzte herritarrek erabakitzen denontzako beharrezko izan behar luke-
ten beharizan zientifikoak eta garapen teknologikoa? Hala ere, atal honetan talde
ikertzaileek eginiko eztabaida soziopolitikoak ez dira jasotzen, zientziaren erabi-
bilera ekonomikoan eta teknologiarenekin azterketan ezin dezakegu ikuspegi soziopo-
litikoa ahaztu; izan ere, erabakiak hartzeko sistema zuzenki erlazionatua dagoelako
gai honekin.

Beraz, garrantzi handiko atal edo esparru ekonomiko bat aztertzean, adibidez
arloan energetikoa, nabaria da erabakiak hartzen dituztenak konpainia gutxi eta
administrazio dirudunenak direla, herriaren edo gizarte osoaren ahotsa kontuan
hartu gabe. Nork erabaki du hidrokarburoak izatea energia-iturri nagusia? Nork
erabaki du energia nuklearraren garapena? Nola proiektatu eta inposatzen ari dira
energia eolikoak eta beste energia alternatibo batzuk? Gizarte-oinarriak badu horri
buruzko boterea edo erabakitzeko aukera?

Autoalternatiba benetan eraginkorra izan dadin, tokian tokiko zein nazioarteko
administrazioek herri mailako kontsulta-sistema berri bat eratu beharko lukete,
erabakiak demokratikoki hartutakoak izatea bermatzeko; eztabaidaren ostean,
hausnarketa eta herriak hartutako erabakia; adostutakoa baldin eta ahal bada —
eztabaida bukatzean—. Posiblea ez bada, orduan gehiengoaren sistemak
erabakiko luke.

Sistema soziopolitiko parte-hartzailea erabiliz, pertsonak ezagupen zehatzak
ikasteko aukera izango lukete eta haien beharretara hobekien egokitutako akzio
sozioekonomikoak aukeratzeko gaitasuna izango lukete. Ideia demokratiko horren
kontra, errealitate antidemokratikoa nagusitzen da gaur egun, elite gutxi batzuek
oinarritik aukeratutako erabakiak eragozten dituztelarik, boterearen eliteek kontro-
laturiko hedabide ezberdinen laguntzaz errealtatea beren interesetara manipulatuz.

Politika estrategikoa izeneko erabaki sozioekonomikoak dira garrantzitsuenak;
izan ere, geroari begira gure bizitza erabat baldintzatuko duten erabakiak hauek
direlako: energia-politika, etxebizitza, lana, ingurumena, azpiegiturak, etab. Azken
finean, baliabide naturalekin harreman zuzena izaten duten erabaki horiek dira
garrantzitsuenak (lurra, airea, ura) gure ahalbide ekonomikoa bizi ahal izateko.

Erabaki horiek erabat eraginkorrak izaten dira, eta batzuetan ondorengo be-
launaldiek ere jasan behar izaten dituzte. Hori dela-eta, ondorengo urteetan erabi-
liko diren energien inguruan erabaki beharko lukete, bai zientzian zein teknologian,
horien eskubideak bermatuz eta baliabide naturalak ustiatzen dituztenen interes
partikularren gainetik.

Horren harian, argi dago bai sistema kapitalistak zein sozialistak garapenean oinarritutako eredu sozioekonomikoa antolatu dutela, eta bizi-mailaren arlo ekonomikoaren adierazleak areagotzeko helburua izan dutela sortutako bizi-kalitatearen beherakada kontuan hartu gabe.

Egun entzun ditzakegu bizi-kalitatearen aurretik bizi-maila dagoela adierazten duten argudio ekonomikoak; horien ustez bizi-kalitatea igotzen bada, bizi-maila beherantz doa eta alderantziz. Beste behin ere, kausa-efektu terminoa alderantzikatu egiten da, efektua kausa gisa ulertuz eta alderantziz.

Benetan, bizi-maila gorantz doa (Efektua) baliabide natural gehiago ustiatzen direlarik (Kausa). Berriz, bizi-kalitatea areagotzen da baliabide naturalak errespetatzean. Beraz, bizi-kalitate baxua bizi-maila handiago baten efektua dela adieraztean, iruzurra egiten da edo manipulazio gordina.

Arrazoibide horietaz gain, berehalako etekina ematen duten interes ekonomikoak eta erosotasuna gizakion harremanen eta talde-lanaren aurretik jarri ohi dira. Era horretan diruak garrantzi handia hartzen du pertsonen arteko harremanetan, eta pertsonen arteko erlazioetan dirua ez badago, hoztu egiten dira eta askotan galdu egiten dira.

Gainera, teknologia berriek dependentzia eragiten dute pertsonen artean, lehenago ikus-entzunezko komunikabideek eragin zuten bezala, orain bide digitalekin gertatu ohi da. Hau da, informatikoak diren medioen menpean gaude, mass-mediak sortutako albisteen menpe, etab. Beraz, teknologiaren mendekotasuna dugun pertsonak gara.

Hirugarren Munduko biztanleak askoz ere menderatuago daude; izan ere, lurralde horietako gobernuek ondasun industrialak abantaila teknologikoen truke aldatzen dute, kanpo-zorra handituz.

Horrela jarraitzerik ez dago. Autoalternatibaren garapena bermatzeko, bizi-maila eta bizi-kalitatea uztartzen dituzten pertsonak behar dituzte biodibersitatea errespetatu eta baliabide naturalak mantentzeko asmoa dutenak. Horretarako, ikertu eta garatu beharreko zientzia eta teknologia oinarritik hausnartu behar da, erratzeko beldurrik izan gabe; izan ere, akatsetik dator era zuzena eta alderantziz. Benetan garrantzitsuena tresnen kudeaketa herriaren esku izatea da, eta azken hori, ez dute lortu sistema sozialistak ezta sistema kapitalistak ere. Amaitzeko, esan beharra dago kapitalismoan gai hauek erabakitzeko aukera izan dutenak botere faktiko enpresariala direla, eta, sistema sozialistean, aldiz, botere faktiko politiko-militarra izan dela ezin dugu ahaztu.

Aztertutako esperientzia autogestionarioetan erabaki zientifiko zein teknologikoak erabili diren mailak bestelakoak izan dira, hala ere, azken horiek, globalki sortutako sistema sozioekonomikoetan eragin zuzena izan dute. Sistema kapitalistan sortutako eredu autogestionarietako elitean dauden teknokraten esku utzi dute erabakitzeko aukera, edo merkatutik aldendu eta baztertu dira sektak bezalako taldeak sortuz. Sozialismoan izandako esperientziak sistema zentralizatuan kokatu dira, masa-erakundeek nahiz alderdi politiko ofizialak euren kudeaketa enpresariala menpean izan dutelako.

Era berean, salbuespenak egon badaude; nahiz eta ez diren oso eraginkorrak izan, amaigabeko esperientzia jugoslaviarra izan ezik, azken horrek izaera estatal egokia baitzuen era honetako sistemen garapena bermatzeko.

Azkenik, indigenen papera ere aztertu da garapen zientifiko eta teknologikoan. Era horretan, indigena den ikuspegi panteistatik ikusita, garapenezko hazkuntza edo esplotazioaren kontra izan da betidanik; izan ere, azken horiek, baliabide naturalak eta komunalak pribatizatzen dituzte erabat. Indigenek biziraun-sentimendua goraiatzeko dute, pertsonak edozein baliabidetaz baliabide baliabide baina baliabide naturalen pribatizazioa baztertzeko dute; izan ere, beste ikuspuntu batetik alderatuta, ez zen biziraupena izango, baizik eta propietateak pilatzeko asmo hutsa.

Filosofia panteistan "DNA" ez dira bakarrik pertsonak, baita landareak, animaliak, lurra, eguzkia, mendia, etab. ere. Horiek bizia dute, horregatik haien beharra daukagu, inoiz ez bera zapuztu ezta gutxiago pribatizatu.

Euskaldunak gara Europako azken indigenak, filosofia hau ulertu eta askok geure egiten dugu bizitzeko garaian. Hau dela eta, autoalternatiba garatzeko aukera handiagoak ditugu.

Hori dela-eta, autoalternatibaren ikuspegitik garapen zientifiko-teknologikoa bermatzeko hauek lirateke bertako parametroak:

- Programa zientifikoei buruzko erabakiak eta teknologiarekiko aplikazioa gizartearen oinarritik aukeratu beharko lirateke, parte hartzeko sistema berriak erabiliz, zeinek eztabaida irekia posible egingo luketen, eta erabakiak adostutakoak eta gehiengo batek aukeratuak izan beharko lirateke.
- Ondasunen usufuktua bermatuko lukeen eztabaida sakon bat piztu beharko litzateke, eta baliabide naturalak aberasteko helburuarekin bereganatzeak sortzen duen errelitatea baztertu.
- Autoalternatibak pertsona gazte eta kontzientziatuak behar ditu, erantzukizun zientifiko-teknologikoak eta, batez ere, beste belaunaldietan erantzukizuna ez delegatzean dago sekretua.
- Garapenari zuzendutako kritikak ezinbesteko balioa du autoalternatiba zientifiko-teknologikoaren garapena bermatu nahi bada, bizi-kalitatea eta bizi-maila orekan tartekatuz. Horren inguruan, teknologia berriak egoki erabiltzea eta ez horien menpean izatea.
- Indigenen ikuspegi panteistak garapen zientifiko-teknologikoaren kudeaketa oinarritik ulertzera gonbidatzen gaitu erabat.

Bibliografia

Liburuak

- Alonso, A. *et al.* (1996): *Ciencia, Tecnología y Sociedad*, Editoria Verbo Divino, Lizarra, Nafarroa.
- Barandiaran, J. M. (2000): *Curso Monográfico de etnología vasca*, Joxe Miguel de Barandiaran Fundazioa, Ataun, Gipuzkoa.
- Bauman, Z. (2000): *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Gedisa, Bartzelona.
- Castro Díaz-Balart, F. (2003): *Ciencia, Tecnología y Sociedad*, Editorial Científico-Técnica.
- Estornés Lasa, B. (1998): *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* (XLVI. alea), Auñamendi, Donostia.
- Fernández Font, M. (1997): *Innovación Tecnológica y Competitividad*, Fundación Friedrich Ebert, Ciudad de México.
- R. Repetto *et al.* (1989): *Wasting assets - natural resources in the national income accounts*, D.C., Instituto Mundial de Recursos, Wáshington.
- Riechmann, J. (1991): *¿Problemas con los frenos de emergencia?*, Editorial Revolución S.A.L., Madril.

Web guneak:

- <http://tierradegenistas.blog.com.es/2006/11/13/>
<http://www.oei.es/salactsi/nunez01.htm>

